

Fedeafeseko emakume eta gizonek parekidetasunaren aurrean duten egoeraren diagnostikoa



AZTERLANAREN ONDORIOAK ETA AHOLKUAK



Fedeafes

Buru gaixotasuna duten pertsona eta senide elkarten Euskadiko federazioa

Federación de Euskadi de asociaciones de familiares y personas con enfermedad mental

FEDEAFES OSATZEN DUTEN ELKARTEAK /



LACUNTZAILEAK /



ZER DA FEDEAFES

FEDEAFES Buru Gaixotasuna duten Pertsona eta Senide Elkarteen Euskadiko Federazioa da. Entitatea 1987an sortu zen eta, orduz geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoko kolektiboaren ordezkari gisa jardun du. 1998an herri onurako deklarazioa aitortu zioten.

Egun, 3.000 familia baino gehiago dira bazkide eta 9.000 pertsonatik gora ordezkatzeko federazioak EAE osoan. Fedeafes osatzen duten elkarteak ASAFES (Araba), AVIFES (Bizkaia), ASASAM (Aiaraldea eskualdea, Araba) eta AGIFES (Gipuzkoa) dira.

FEDEAFESek eta bere elkarteek (Avifes, Agifes, Asafes eta Asasam) 2012-2013 urte bitartean landutako ikerlana. 2014ean argitaratua.

Buru Gaixotasuna duten Pertsona eta Senide Elkarteen Euskadiko Federazioa (FEDEAFES)

Tres Cruces 14, behe eskubitara · Arza industrialdea · 01400 Laudio - LLodio (Araba)

www.fedeafes.org · fedeafes@fedeafes.org



Erabilera ez komertziala (by-nc): Eduki honetatik abiatuz beste lan batzuk sortzeko aukera dago, beti ere erabilera komertzialik ez badute. Jatorrizko txostena ere ezin da erabili helburu komertzialekin.

HITZAURREA

Denbora luzean, genero-ikuspegia osasun mentalekin loturiko gaietatik baztertua egonda. Gaur egungo ikerketetan ere, ia jorratu gabe dagoela esan daiteke. Europako Batzordeak argitaratu duen Liburu Berdean aipatzen denez, Europako Parlamentuko Emakumeen Eskubideen eta Aukera Berdintasunaren Batzordeak agerian utzi duen errealitatea da hori. Dokumentu horrek argi utzi du osasun mentalaren alorrean genero-ikuspegia egon badagoela; besteak beste, elikadura arazoetan, neuroendekapenezko gaixotasunetan, eskizofrenian, gogo-aldartearen nahasmenduetan, antsietatean, izuaren nahasmenduetan edota depresioan.

Hala ere, Liburu Berdeak dio genero-ikuspegia ez dela “behar bezala kontuan izan”, eta, ondorioz, honako eskaera egin du: osasun mentala sustatzeko proposatutako neurrietan nahiz prebentzio eta ikerketa ekintzetan ikuspuntu hori sistematikoki barneratzea. “Egindako ikerlanak eskasak eta desegokiak dira; gaixotasun hauen prebentzioan eta sendatze prozesuan

lortu diren aurrerapenak uste baino urriagoak izan dira, beste eritasun batzuetan lortu direnekin alderatuz”.

Osasun mentalaren alorrean genero-ikuspegia baztertu izanak eragin kaltegarriak izan ditu elkarte munduan. Gaur egungo **elkarte gehienek ez dute euren estatutuetan jasotzen emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde egiteak duen garrantzia**, buru gaixotasunen bat duten emakumeek pairatzen duten diskriminazio bikoitza arintzeko. Errealitate horren aurrean, Fedefes eta bere lau elkarteok (Avifes, Agifes, Asafes eta Asasam) genero-ikuspegia gure jardueraren eremuan pixkanaka barneratzen joateko prozesu bati ekin diogu.

Dokumentu honetan ikerketa-arlo bakoitzeko ondorio eta aholku nagusiak jaso ditugu:

1. Mainstreaming
2. Emakumeen jabetzea eta balioak aldatzea
3. Gizarte-antolaketa arduratsua
4. Emakumeen aurkako indarkeria

1/ Psikologia lanen %74,1k ez du genero-ikuspeirik, *Publicaciones sobre mujeres, salud y género en España (1990-2005)* ikerketaren arabera. Esther Castaño Lópezek, Juncal Plazaola Castañok, Julia Bolívar Muñozek eta Isabel Ruiz Pérezek idatzitako lana da hori, Espainiako Salud Pública aldizkarian argitaratua 2006ko azaroan.

2/ *Hacia una estrategia de la Unión Europea en materia de salud mental* (Europako Parlamentua, 2006) argitalpenaren harira emandako iritzia.

3/ *Hacia una estrategia de la Unión Europea en materia de salud mental*. Brusela, 14.10.2005. COM (2005) 484 bukaera.

ONDORIOAK ETA AHOLKUAK

1. MAINSTREAMING (GENERO- IKUSPEGIA BARNERATZEA)

AHOLKUAK

- » **Elkarteen berdintasunarekiko konpromisoa estatutueta**n jasotzea.
- » Buru gaixotasunen bat duten emakumeen **diskriminazio bikoitzaren inguruko egoeren ezagutza sakontzea**, adituak parte hartzen duten ikerketen edota seminarioen bidez, besteak beste.
- » **Genero kontuetan prestakuntza eskaintzea langileei**, eguneroko lanean genero-ikuspegia praktikan jartzeko gai izan daitezzen.
- » Genero-alorrean **aurrekontuak** diseinatzea.
- » **Genero-ikuspuntua barneratzeko** prozesua bultzatzeko **egitura** sustatzea.

2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BALIOEN ALDAKETA

ONDORIOAK

- » Barne antolakuntzari dagokionez, **elkarreetako langile ugari emakumea da**, eta horrek eragina du bai lantaldean bai zuzendaritzan.
- » **Zuzendaritza-batzordeetan gizonetzkoak** emakumeak baino **gehiago** dira.
- » **Bazkide gehienak emakumeak** dira.
- » Buru gaixotasuna duten pertsonen zuzendutako **zerbitzu eta programetan**, batz besterik, **emakume baino gizon gehiago artatzen dituzte**, bikoitza hain zuzen. Arrazoiak hauexek izan daitezke:
 - **Ohiko rolerik** etxeko lanarekin lotzen dituzte emakumeak.
 - **Familiek gehiegi babestu** eta etxean geratzera bultzatzen dituzte, gizonen baino gehiago.
 - Buru gaixotasuna duten emakumeek **ahalduntze maila txikia** dute, eta zaila egiten zaie eskubideak dituztela sinestea.
 - **Gizonetzkoen beharrei egokitutako eredu baten arabera diseinatuta daude baliabideak**; hau da, funtsezko auto-zainketan oinarrituta daude. Hortaz, behar sofistikatuagoak ez dira kontuan hartzen, emozioekin eta harremanekin zerikusia dutenak, hain zuzen.
 - **Pertsonak laguntza-zerbitzuetara bideratzen dituzten gunetan emakumeekiko eta gizonekiko ikuspegi desberdina** antzematen da. Buru gaixotasuna duten emakumeak etxean geratzeak arazo gutxiago dakarrela pentsatzeko joera dago.

- » Baliabideak eta zerbitzuak gutxiago erabiltzen dituztenez, **gizartean parte hartzeko aukera eskasagoak** dituzte emakumeek.
- » Emakumeen **partaidetza-maila baxua enpleguaren arloan** nabari da gehien.
- » Buru gaixotasuna duten **amentzako laguntza-baliabiderik ez** dago.
- » **Ez dago** buru gaixotasuna duten **emakumeentzako talde egonkorrik**, elkarteren batean izan ezik.

AHOLKUAK

- » **Zuzendaritza-batzorde parekideak sustatzea**, baita ardura handiko lanpostuetan emakume eta gizonen kopuru orekatua lortzea ere. Buru gaixotasunen bat dutenen ahalduntze prozesuak bultzatzeko aukerak aztertzea, batzordeetan parte hartzeko gaitasunak gara ditzaten, Asasam elkarteak izan duen esperientziari jarraituz.
- » Buru gaixotasuna duten **emakumeei eskusiboki zuzendutako informazio-baliabideak** diseinatu eta zabaltzea. Web orrietan atal bereziak sortzea.
- » **Buru gaixotasuna duten emakumeek gizartean** eta, bereziki, **enpleguan parte hartzearen garrantziaz sentsibilizatzea familiak**. Eurekin lan egitea, senidea gehiegi babes ez dezaten bermatzeko.
- » Lehen mailako arretako mediku-zerbitzuetan eskaintzen dituzten **zerbitzu eta baliabideen berri ematea**.
- » Emakumeek gutxien erabiltzen dituzten zerbitzuetan, eurak **ikusiak izan daitezen laguntzea**, informazio eta komunikaziorako erabiltzen diren **euskarri guztien bidez**, bereziki irudietan edota aipamen zehatzetan agerraraziz.
- » Emakume taldeei zuzendutako **ahalduntze lanategiak** diseinatzea, honako gaiei arreta berezia eskainiz: emakumeen aurkako indarkeria sexista, sexualitatea, autoestimua, enpleguaren garrantzia eta parte-hartze soziala.
- » **Taldeko lana egitea**, buru gaixotasuna duten emakumeen laguntza eta ahalduntzea bultzatu eta laneratzea sustatzeko, autoestimua garatzeko, harremanetarako edota lanerako baliabideak lor ditzaten.
- » Tradizionalki gizonen esparrua izan diren eta lan eskaintza zabalagoa duten sektoreetan buru nahasmendua duten emakumeen **laneratzea bultzatzea**, prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzen bidez.
- » Elkarrean **emakume taldeak** sortzea.
- » Buru gaixotasuna duten **amentzako baliabideak** diseinatzea.
- » Ikertzea zergatik bideratzen dituzten emakume gutxiago laguntza-zerbitzuetara. Erakundeekin, elkarrekin, buru gaixotasuna duten emakumeekin eta psikiatrekin **elkarrizketarako mahaia** osatzea.
- » **Bideratzeak egiten dituzten zerbitzuetan sentsibilizazio-lana** burutzea, emakume eta gizonen mezu bera helarazi diezaieten; batez ere, enpleguari dagokionez.

- » **Emakumeentzako tokia gordetzea** parte-hartze eskasa duten programa eta zerbitzuetan.
- » **Zerbitzuen gehiegizko maskulinizazioa ekiditea**, emakumeen erosotasuna ez baldintzatzeko.
- » Baliabide eta zerbitzuen erabileran **parekidetasuna lortzeko helburua** dagoela **azaltzea**.
- » **Jarduerak diseinatzerakoan emakumeen beharrak** eta interesak **kontuan hartzea**. Aisialdian eta denbora librean gustukoak dituzten jarduerak antolatzea.
- » Emakumeei zuzendutako **pisuak** eskaintzea.
- » Buru gaixotasuna duten emakumeen diskriminazio bikoitza agerian utzi eta emakumezkoen jabetasuna eta parte-hartze soziala sustatuko dituen **batzordea edo emakume taldea** sortzen laguntzea.
- » Emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzen duten erakundeek euren **politiketan kontuan izan ditzatela buru gaixotasuna duten emakumeen behar espezifikoak**, eta baliabide eta zerbitzuak kasu horietara egokitu ditzatela.

3. GIZARTE-ANTOLAKUNTZA PAREKIDEA

ONDORIOAK

- » Azken urteotan langileen artean izandako **jaiotza-baimen, lanaldien murrizketa edo eszedentzia ia guztiak emakumeek hartu dituzte**.
- » **Lan-orduak antolatzeko garaian ia elkarte guztiak erabiltzen dituzte parametro malguak**, nahiz eta neurri horiek ez dauden dokumentu lotesle batean jasota.
- » **Familiei zuzendutako zerbitzuetan emakumeak dira gehienak**. Gure gizartean emakumeek duten zaintzaile-rolarekin bat datorren datua da hori. Aipatutako zerbitzuen erabiltzaileen artean, %75 baino gehiago emakumea da, bai eta aholkularitza juridikoa eskatzen duten senideen %80 ere.
- » **Emakume zaintzaile gehienek** sufrimendu handiko egoerak bizi izan dituzte edo bizitzen ari dira, semearen edo alabaren gaixotasunaren **errudun sentitzen** direlako.
- » **Atsedenaldiak edo zainketa-lanerako laguntzak** eskaintzera zuzendutako baliabideak **ez dira nahikoak**.
- » Buru gaixotasuna duen pertsona bati **etengabe zaintzeak osasun arazoak eragiten dizkie** zaintzaileei.
- » **Gaixotasunaren lehen faseetan zailagoa da zainketa**, eskuragarri dauden baliabideen eta elkarteen ezagutza faltarengatik.

- » Buru gaixotasuna duten pertsonak zaintzeaz, batik bat, emakumeak arduratzen badira ere, azken urteotan **gero eta gizonezko zaintzaile gehiago** agertzen ari direla antzematen da.
- » **Gaixotasun mentala duten pertsonak zainketez onuradunak** direla pentsatu ohi da, baina emakumeen kasuan, **zaintzaile rola ere** izaten dute.

AHOLKUAK

- » **Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeko neurriak dokumentu lotesleren batean jasotzea.** Langileekin adostutako beste neurri batzuk ere hartzea: esate baterako, lanaldi malguagoak edota arinagoak.
- » **Langileak sentsibilizatzea, emakumeen eta gizonezkoen artean zainketa-lanak banatzearen** eta eszedentziak nahiz lanaldi-murrizketa luzeak dituzten emakumeen etorkizun ekonomikoaren inguruan.
- » **Emakumeen eta gizonezkoen zainketa-lana elkarren arteko ardura gisa ulertzeko kultura erakundeetan hedatzea.** Langile gizonezkoen artean aitatasun-baimenez gozatzeko aukera sustatzea.
- » **Ama zaintzaileei lanpostua lortzen** eta mantentzen laguntzea.
- » Ama zaintzaileei seme-alamen gaixotasunaren **errudun sentimendua ginetik kentzen laguntzea.**
- » Buru gaixotasuna duten pertsonen **zaintzaile moduan batik bat emakumeak dihardutela ikusaraztea.**
- » Emakume zaintzaileen **jabekuntza sustatzea,** gehiegizko ardurak askatzen ikasteko eta bere denbora har dezaten laguntzeko.

- » Ama eta aita zaintzaileei **laguntza psikologikoa** eskaintzea.
- » Buru gaixotasuna duten **amei zainketa-lanetan laguntza** eskaintzea.
- » **Emakume eta gizonezkoen parekidetasuna lantzen duten erakundeak sentsibilizatzea,** buru gaixotasuna duten pertsonen zainketarako baliabide publikoak areagotzearen beharraz ohar daitezen, eta arlo honetan elkarren arteko erantzukizun soziala bultzatzeko.
- » **Zainketearekin loturiko programetan gizonek parte har dezaten bultzatzea.** Gizon taldeak sortzea eta, maskulinitate berrien ikuspegitik, zainketaren etikari lotutako balioak barnera ditzaten bultzatzea.
- » Osasun mentalaren sisteman dauden **baliabide eta elkarrean berri ematea.**
- » **Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeko** aukera ematen duen **ordutegia** kontuan hartuz antolatzea **zuzendaritza-batzordeen jarduerak.**

4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

ONDORIOAK

- » Gaur egungo ikerketen arabera, **buru gaixotasun kronikoren bat duten emakumeen aurkako genero-indarkeria egoerek gora egin dute.** Aldi berean, horrelako egoerak pairatzeak nahasmendu psikikoa larritu egin dezake.
- » Ildo beretik, ikerketek diote arlo honetan lan egiten duten **profesionalek zailtasun handia** dutela, oro har, **genero-indarkeria egoerak antzeman eta esku hartzeko.**

AHOLKUAK

- » Ikerketa honetako partaide gehienak bat datoz gai honen inguruan egin diren hainbat azterlanekin, eta, haien ustez, **buru gaixotasunen bat izateak handitu egiten du genero-indarkeria sufritzeko arriskua**, sexu-abusuak bereziki. Aldi berean, egoera horiek bizi izanak buru gaixotasunean eragina duela argi dute.
- » **Indarkeria jasateko aukerak areagotzen dituzten faktorenagusiak**: euren kontakizunari sinesgarritasun gutxiago ematea, gabezia emozionalen ondorioz parekideak ez diren harremanetan murgiltzeko joera handiagoa izatea, euren burua defendatzeko aukera gutxiago izatea, eta abar.
- » Ikerketa honetan parte hartu duten elkarteetako **langileak** arazoaren larritasunaz ohartu dira, nahiz eta batzuetan konturatu **ez dutela arazoari aurre egiteko behar adina baliabide**.
- » Genero-indarkeria sufritzen duten emakumeei zuzendutako **harrera-zerbitzu publiko gehienetan ez dituzte buru gaixotasuna duten emakumeak onartzen**. Aukera hori ematen dutenek, berriz, ez dute izaten langileen artean pertsona horiek artatzeko prestakuntza egokia duenik.
- » **Buru gaixotasuna duten emakumeen jabetzea, prestakuntza eta sentsibilizazioa bultzatzea**, indarkeria-egoerak identifikatzeko gai izan daitezen eta ez daitezen kulpadun sentitu. Antzerako egoeran dauden pertsonen arteko elkarriketarako espazioak sortzea, askatasunez adierazteko aukera izan dezaten.
- » Bikotekide bortitzaren aukeraketan eragina duten **maitasun erromantiko eredu berri ematea** emakume hauei.
- » Genero-indarkeria pairatu duten emakume askok normalean izaten duten **kulpa-sentimendua arintzeko erremintak** eskaintzea.
- » Buru gaixotasuna duten emakumeen aurkako **genero-indarkeria gizartean ikusarazteko ekimenak** bultzatzea.
- » Arreta zuzeneko **profesionalei indarkeria-mota horri buruzko prestakuntza** eskaintzea, egoera horiek hautemateko eta gainditzeko gai izan daitezen.
- » Administrazio publikoekin elkarlanean aritzea, **horrelako kasuak bideratzeko protokoloa** lantzearren.
- » Administrazioei exijitzea **genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako zerbitzuak** buru nahasmendua duten emakumeen behar espezifikoiei arreta emateko prestatuta egon daitezen.
- » Administrazio publikoiei eskatzea buru gaixotasuna duten emakumeengan oinarritutako genero-indarkeriari buruzko **azterlanak** burutu ditzaten.



Fedeafes

Buru gaixotasuna
duten pertsona
eta senide elkarteen
Euskadiko federazioa

Federación de Euskadi
de asociaciones de
familiares y personas
con enfermedad mental